Texto aprobado por Pleno 25-6-04

# "GETXOKO KULTUR ETXEA" TOKIKO ERAKUNDE AUTONOMOAREN ESTATUTUAK

# ESTATUTOS DEL ORGANISMO AUTÓNOMO LOCAL "AULA DE CULTURA DE GETXO"

## IZAERA ETA HELBURUAK

**1.- ARTIKULUA**.- Getxoko Udalak "Getxoko Kultur Etxea" Tokiko Erakunde Autonomoa sortu zuen, estatutu hauetan zehazten diren helburuekin.

**2.- ARTIKULUA**.- Honela sortutako Erakundeak nortasun juridiko publikoa izango du, hala nola administratu, eskubideak erdietsi, kontratatu eta bere helburu eta xedeak lortzeari dagozkion betebeharrak bere gain hartzeko.

**3.- ARTIKULUA**.- Erakundeak honako helburu hauek ditu:

a) Kultura, zientzia eta artearekin lotutako edozein ekintza garatu eta sustatu, euskal kulturaren adierazpideei eta euskararen garapen eta berreskurapenari arreta berezia eskainiz.

b) Udalerriko taldeen ekimen kulturalak bultzatzera lagundu, hiritarren parte hartzea kulturaren arlo guztietan sustatuz.

c) HABEren menpeko Udal Euskaltegia, orain arte Getxoko Kultur Etxea Zerbitzu Fundazio Publikoa zenaren babespean sortua, garatu eta kudeatu.

## NATURALEZA Y FINES

**ARTÍCULO 1**.- El Ayuntamiento de Getxo creó el Organismo Autónomo Local "Aula de Cultura de Getxo" para el cumplimiento de las finalidades que se concretan en los presentes Estatutos.

**ARTÍCULO 2.-** El Organismo así creado tendrá personalidad jurídica pública y plena capacidad para administrar, adquirir derechos, contratar y asumir obligaciones, referidas a la consecución de sus objetivos y finalidades.

**ARTÍCULO 3.-** El Organismo tiene las siguientes finalidades:

a) Desarrollar y promover cualquier actividad cultural, científica y artística, prestando especial atención a todas las manifestaciones de la vida cultural vasca y desarrollo y recuperación del euskera.

b) Ayudar a potenciar las iniciativas culturales de los distintos grupos del municipio, fomentando la participación ciudadana en todos los ámbitos culturales.

c) El desarrollo y gestión del Euskaltegi Municipal, dependiente de HABE, creado bajo el patrocinio de la hasta ahora Fundación Pública de Servicio Aula de Cultura de Getxo.

## ERAKUNDE AUTONOMOAREN ORGANOAK

**4.- ARTIKULUA**.- Getxoko Kultur Etxea Erakunde Autonomoaren Gobernu eta Administrazioa hauexek dira.

1. Kontseilu Artezkaria
2. Kontseilu Artezkariko Presidentea
3. Zuzendari Kudeatzailea

## ÓRGANOS DEL ORGANISMO AUTÓNOMO

**ARTÍCULO 4.-** El Gobierno y Administración del Organismo Autónomo Aula de Cultura de Getxo, son los siguientes:

1. El Consejo Rector
2. El Presidente del Consejo Rector
3. El Director Gerente

**5.- ARTIKULUA**.- Kontseilu Artezkaria Kultur Etxearen organo gorena da eta beronen gobernua eta kudeaketa bereganatzen ditu.

**ARTÍCULO 5.-** El Consejo Rector es el órgano supremo del Aula de Cultura y asume el gobierno y gestión de la misma.

**6.- ARTIKULUA**.- Kontseilu Artezkariaren kideak hauexek dira:

a) Presidentea:
Berezko Presidentea Alkatea da. Beronek dagozkion ahalmenak Presidente Eragilearen esku utzi ahal ditu. Presidenteak, berdinketarik egonez gero, kalitateko botoa emateko gaitasuna du.

b) Botodun batzordekideak:
Udalbatza osatzen duten talde politikoetako hamaika zinegotzi, udal hauteskundeetan lortutako emaitzen arabera izendatuak.

Indarreko hauteskunde sistemaren arabera Udalbatzarako aukeratutako talde politiko guztiek izango dute ordezkapena Kontseilu Artezkarian. Hortaz, berau osatzen duen zinegotzi kopurua handitu ahal da, aurreko paragrafoan aipatutako proportzionaltasunari beti ere eustearren.

c) Kontseilu Artezkariaren batzarretan eta Udal Euskaltegia ukitzen dituzten gaiak aztertzerakoan, HABEko ordezkari batek parte hartuko du, hitz egiteko eskubidearekin baina boto eskubiderik gabe.

d) Idazkaria:
Erakundeko Zuzendaria da, hitza bai baina botorik ez duena.

**ARTÍCULO 6**.- El Consejo Rector estará integrado por los siguientes miembros:

a) El Presidente:
El Alcalde es el Presidente Nato, quién podrá delegar las facultades que le corresponden en el Presidente Efectivo. El Presidente tendrá la condición de voto de calidad en el caso de empate.

b) Vocales con voto:
Once Corporativos de los grupos políticos de la Corporación designados en proporción a los resultados obtenidos en las elecciones municipales.

Todos los grupos políticos de la Corporación elegidos de acuerdo con el sistema electoral vigente, tendrán su representación en el Consejo Rector, incrementándose en este caso el número de Concejales integrantes del mismo a fin de conservar en todo caso la proporcionalidad mencionada en el párrafo anterior.

c) En las reuniones del Consejo Rector y en el tratamiento de las cuestiones que afecten al Euskaltegi Municipal, participará con voz pero sin voto un representante de HABE.

d) Secretario:
Actuará el Director del Organismo, con voz pero sin voto.

**7.- ARTIKULUA**.- Kontseilu Artezkariko karguek dagokion Udal legealdiak beste iraungo dute.

Uko, gaisotasun, heriotz, ez egote eta abar direla medio sortutako leku hutsen berri berauen esleipena dagokion erakundeari emango zaio, berriro betetzeaz ardura dadin.

**ARTÍCULO 7.-** La duración de los cargos del Consejo Rector será por el mismo período que dure la legislatura Municipal correspondiente.

Las vacantes que se produzcan por renuncia, enfermedad, defunciones, ausencias, etc., serán puestas en conocimiento del organismo al que corresponda su asignación, para que cubra su sustitución.

**8.- ARTIKULUA**.- Kontseilu Artezkariari honako eginkizun hauek dagozkio:

**ARTÍCULO 8.-** Corresponderán al Consejo Rector las siguientes funciones:

a) Erakundearen jarduketa eta kudeaketa ildoa zehaztea, eta egiten den jardueraren kontrol eta jarraipen lanak egitea.
b) Legeriaren arabera, mota guztietako egintza eta kontratuak egitea eta bere burua horiek betetzera behartzea, bere eskumenen barruan betiere.
c) Getxoko Kultur Etxea Erakundearen ondasunak, eskubideak eta ekintzak erreklamatzea eta defendatzea epaiketan nola epaiketatik kanpo Auzitegi, Epaitegi, Agintari edo Udalbatzen aurrean, ados jarri edo sor daitezkeen arazoak arbitraje epaiketaren bidez konpondu ahal dituela eta eragindako akzioei eta errekurtsoei uko egin ahal diela. Hau guzti hau 9-g artikuluan zehaztutakoari jarraiki.
d) Getxoko Udalak Erakunde Autonomo honen izenean jartzen dituen ondasun guztiak, eta dohaintza, jaraunspen eta legatuetatik datozenak, jasotzea eta onartzea.
e) Erakundearen ondasunen inbentarioa eta urteroko zuzenketak egitea eta onartzea, Udalari jakinaraziz.
f) Plantila-egitasmoa onestea, eta Udalari onets dezan aurkeztea. Zuzendari kudeatzailea izendatzea, Presidenteak proposatuta, eta Tokiko Araubideen Oinarriak arautzen dituen Legearen 85 bis 1.b) artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.
g) Getxoko Udalari Estatutu hauek indargabetzeko edo osorik nahiz alde batean aldatzeko proposatzea.
h) Getxoko Kultur Etxean aurkeztu beharreko barne araudiak eta berauen aldaketa eta indarrean jartzea onartzea.
i) Urteroko azaroa baino lehen Erakundearen hurrengo ekitaldirako Aurrekontua idaztea Udalak onar dezan.
j) Erakunde Autonomoaren Lanpostu Zerrendak onestea.
k) Tokiko Araubidearen legeriaren arabera udaleko osoko bilkurari dagozkion eskurantza guztiak.

a) Determinar la línea de actuación y gestión del Organismo, así como realizar la labor de control y seguimiento de la actividad que se realiza.
b) Obligarse y otorgar con arreglo a la legislación, toda clase de actos y contratos dentro del ámbito de su competencia.
c) Reclamar y defender en juicio o fuera de él, ante los Tribunales, Juzgados, Autoridades o Corporaciones, los bienes, derechos y acciones pertenecientes al Organismo Aula de Cultura de Getxo, pudiendo transigir o someter las cuestiones que se susciten a juicio arbitral y desistir de las acciones y recursos que promueva. Todo ello conforme a lo señalado en el artículo 9-g.
d) Aceptar y recibir los bienes que el Ayuntamiento de Getxo adscriba al Organismo Autónomo, así como los procedentes de donativos, herencias y legados.
e) Formar y aprobar el inventario de los bienes del Organismo, así como las rectificaciones anuales, comunicándolo al Ayuntamiento.
f) Aprobar el proyecto de Plantilla que se elevará al Ayuntamiento para su aprobación. Nombrar al Director Gerente, a propuesta del Presidente y de conformidad con lo dispuesto en el artº. 85 bis 1.b) de la Ley Reguladora de las Bases del Régimen Local.
g) Proponer al Ayuntamiento de Getxo la derogación, modificación total o parcial de los presentes estatutos.
h) Aprobar los reglamentos internos que hayan de presentarse en el Aula de Cultura de Getxo, su modificación y puesta en vigor.
i) Redactar antes del mes de noviembre de cada año el Presupuesto del Organismo para el ejercicio próximo y someterlo a la aprobación del Ayuntamiento.
j) Aprobar las Relaciones de Puestos de Trabajo del Organismo Autónomo
k) Todas aquellas atribuciones que en la legislación de Régimen Local correspondan al Pleno del Ayuntamiento.

**9.- ARTIKULUA**.- Presidentearen eginkizunak:

a) Getxoko Kultur Etxearen zerbitzutan lanean dauden pertsonak izendatzea, kargutik kentzea, ordaintzea, saritzea eta zehatzea, zortzigarren artikulua betez ezartzen diren arauei jarraiki.

**ARTÍCULO 9.-** Son funciones del Presidente:

a) El nombramiento, destitución, retribución, recompensas y sanciones del personal al servicio del Aula de Cultura de Getxo, de acuerdo con las normas que se establezcan en cumplimiento del artículo ocho.

b) Erakundearen zein bere menpeko enplegatuen kokaera eta zerbitzuak zaintzea.
c) Sarrerak eta ordainketak agintzea.
d) Kontseilu Artezkariaren bileretara deitzea, buru izatea, eten edo amaitzea, eztabaidak zuzentzea eta berdinketak bere kalitateko botoaz erabakitzea.
e) Kontseilu Artezkariak hartutako erabakiak bete daitezen zaintzea.
f) Getxoko Kultur Etxea Auzitegi, Epaitegi, Magistratu, Udalbatza, Agintari, Notari eta partikularren aurrean ordezkatzea; ordezkapena gauzatzeko aginduak eta ahalordeak ematea.
g) Kontseilu Artezkariaren eskumenekoak diren gaietan ekintza judizial eta administratiboak betetzea, premiazko kasuetan, eta lehen batzarrean haien berri ematea.
h) Kontseilu Artezkariaren izenean egin beharreko kontratuak sinatzea.
i) Batzar-agiriak eta ziurtagiriak zilegitzea, beraietan oniritzia jarriz.
j) Kontseilu Artezkariak ematen dizkion gainerako funtzio eta eskurantzak, eta tokiko araubidearen legeriaren bidez udaletan alkateari ematen zaizkionak.

Aipatu ahalmenak Presidenteak izendatutako pertsonaren esku utzi ahal dira.

b) Vigilar la actuación y los Servicios del Organismo, así como de las personas empleadas a su cargo.
c) Ordenar los ingresos y pagos.
d) Convocar, presidir, suspender o levantar las sesiones del Consejo Rector, dirigir las deliberaciones y decidir los empates con su voto de calidad.
e) Cuidar que se cumplan los acuerdos adoptados por el Consejo Rector.
f) Representar al Aula de Cultura de Getxo ante los Tribunales, Juzgados, Magistrados, Corporaciones, Autoridades, Notarios y particulares; conferir mandatos y poderes para ejercer dicha representación.
g) Ejercer las acciones judiciales y administrativas en cuestiones de competencia del Consejo Rector en los casos de urgencia, dando cuenta al mismo en su primera reunión.
h) Otorgar los contratos que sean necesarios en representación del Consejo Rector.
i) Autorizar las Actas y Certificaciones, poniendo en ellas el visto bueno.
j) Cualesquiera otras funciones y atribuciones que le delegue el Consejo Rector, así como aquellas que en la legislación de Régimen Local se asignan en los Ayuntamientos al Alcalde.

Las anteriores facultades podrán ser delegadas en la persona que el propio Presidente designe.

**10.- ARTIKULUA**.- Kultur Etxeko Idazkariari Erakundeko Idazkaritzaren eginkizunak dagozkio, honako hauek batez ere:

a) Kontseilu Artezkariak egindako bilera guztietara joatea, hitzarekin baina botorik gabe.
b) Batzar-agirien eta Presidenteak zuzendatutako gutunen zirriborroak idaztea.
c) Agiriak, espedienteak eta Artxiboa zaintzea.
d) Erakundeko batzordekideek edota Organo Nagusiak eskatuta, dagozkion gaiei buruzko txostenak igortzea.
e) Erakundeko Bulegoa eta bere zerbitzuko langilegoa antolatzea eta zuzentzea.
f) Kontseilu Artezkariaren erabakiak bete daitezen zaintzea.
g) Erakundeari axola zaizkon gaien bideratze eta ebazpena bultzatzea, Presidentearen jarraibideen arabera.
h) Kontseilu Artezkariak ematen dizkion ahalmenak

**ARTÍCULO 10.-** Al Secretario del Aula de Cultura le corresponderá el desempeño de las funciones de la Secretaría del Organismo y especialmente las siguientes:

a) Asistir a todas las reuniones que celebre el Consejo Rector con voz pero sin voto.
b) Redactar los borradores de las actas de las reuniones y de la correspondencia que dirija el Presidente.
c) Custodiar los documentos, expedientes y el Archivo.
d) Emitir los informes en materia de su competencia, que sean interesados por los vocales y Órgano Rector del Organismo.
e) Organizar y dirigir la Oficina del Organismo y el personal a su servicio.
f) Velar por el cumplimiento de los acuerdos del Consejo Rector.
g) Impulsar la tramitación y resolución de los asuntos que interesan al Organismo, siguiendo las

erabiltzea.

i) Bere karguari dagozkion eginkizunak betetzea.

instrucciones de su Presidente.

h) Ejercer las facultades que le otorgue el Consejo Rector.

i) Desempeñar cuantas funciones estén atribuidas a su cargo.

**BATZARREN ARAUBIDEA**

**11.- ARTIKULUA**.- Kontseilu Artezkariaren ohizko batzarra hilean behin gutxienez egingo da, eta ohizkanpokoa Presidenteak beharrezko deritzon bakoitzean edo Kontseiluko botodun kideen herenak edo gehiagok eskatzen duenean.

Kontseilu Artezkariko edozein kidek aurkeztu ahal ditu proposamenak beti ere ezarritako aurrerapenaz, gai-zerrendan sartuak eta egin beharreko lehendabiziko batzarrean eztabaidatuak izateko, proposatutako gaiak Erakunde Autonomoaren sorrera bultzatu duten helburuekin erlazionatuta baldin badaude.

Batzordearen ohizko eta ohizkanpoko bileratako deialdia idatziz bidaliko da, Presidentearen agindūz eta gutxienez 48 orduko aurrerapenaz, bileran eztabaidatu beharreko puntuak aipatzen dituen gai-zerrendarekin batera.

**12.- ARTIKULUA**.- Bilerak baliozkoak izango dira lehen deialdian kideen herena gehi bat egonez gero, eta bigarren deialdian, ordu erdia beranduago, Presidentea, Getxoko Kultur Etxeko Idazkaria eta gutxienez hiru batzordekide egonez gero. Quorum honek bilera osoan zehar iraun behar du.

**13.- ARTIKULUA**.- Batzarrean dauden eta bozkatzeko eskubidea duten kideen gehiengo soilaren bidez onetsiko dira erabakiak. Aldeko botoak aurkakoak baino gehiago direnean dago gehiengo soila. Estatutuak aldatzeko edo indargabetzeko, ordea, bozkatzeko eskubidea duten Kontseiluko kideen gehiengo osoaren botoak beharko dira.

Kontseilu Artezkariak edo Presidenteak, bere eskumenen barruan, hartzen dituzten erabaki edo ebazpenek administrazio bidea agortuko dute. Horien

**RÉGIMEN DE SESIONES**

**ARTÍCULO 11.-** El Consejo Rector se reunirá con carácter ordinario como mínimo una vez al mes y con carácter extraordinario siempre que lo crea necesario el Presidente o lo soliciten un tercio o más de los miembros del Consejo con voto.

Cualquier componente del Consejo Rector podrá presentar propuestas, con la antelación que se determine, para ser incluidas en el orden del día y tratadas en la primera reunión a celebrar, siempre que los temas propuestos estén relacionados con los fines para los que se ha creado el Organismo Autónomo.

La convocatoria de las sesiones ordinarias y extraordinarias del Consejo se cursará por escrito, de orden del Presidente con antelación mínima de 48 horas, acompañada del Orden del día, en el que se citarán los asuntos a tratar en cada sesión.

**ARTÍCULO 12.-** Las reuniones serán válidas en primera convocatoria si asiste la tercera parte más uno de sus miembros, y en segunda convocatoria, media hora después, si asisten el Presidente, el Secretario del Aula de Cultura de Getxo y tres vocales como mínimo. Este quórum deberá mantenerse durante toda la sesión.

**ARTÍCULO 13.-** Los acuerdos se aprobarán por mayoría simple de los miembros presentes con derecho a voto, entendiéndose por tal la que se produce cuando el número de votos a favor es superior al de votos en contra, excepto la aprobación de la propuesta de modificación o derogación de los Estatutos, que requerirá mayoría absoluta de los miembros del Consejo con derecho a voto.

Los acuerdos y resoluciones adoptados por el Consejo Rector o por el Presidente en el ámbito de sus competencias, agotarán la vía administrativa,

aurka, administrazio bideari bukaera ematen dieten egintzen aurrean egin daitezkeen errekurtsoak jar daitezke, Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legean jasoak.

pudiendo contra los mismos interponerse los recursos que, frente a los actos que ponen fin a la vía administrativa, se recogen en la Ley 30/92 de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo común.

Eman zaizkion eskurantzak betez Kudeatzaileak ematen dituen ebazpenen aurka, bere eskumenak emateko erabakian jasotzen diren errekurtsoak egin daitezke.

Las resoluciones que emita el Gerente en función de las competencias que le estén atribuidas, serán objeto de los recursos que se recojan en el acuerdo de atribución de competencias correspondiente.

**14.- ARTIKULUA**.- Kontseilu Artezkariarentzako batzar-agiri liburua osatuko da. Bertan zera jasoko da: bilerak hasten direneko lekua, eguna eta ordua; Presidentearen eta etorritako Batzordekideen izen-abizenak; eztabaidatutako gaiak; adierazitako iritziak, berauek egin dituen kideak hala eskatzen duenean, eta hartutako erabakiak. Batzar-agiriak Idazkariaren sinadurak eta Presidentearen oniritziak zilegituko dituzte eta ez dira irmo izango hurrengo bileran onartuak izan arte.

**ARTÍCULO 14.-** Se llevará un Libro de Actas para el Consejo Rector. En él se consignarán el lugar, día y hora en que comiencen las reuniones; los nombres y apellidos del Presidente y Vocales asistentes; los asuntos sometidos a deliberación; las opiniones emitidas cundo lo pide el miembro que lo exponga y los acuerdos adoptados. Las Actas serán autorizadas con la firma del Secretario y el visto bueno del Presidente y no serán firmes hasta su aprobación en la siguiente reunión.

## ONDAREA

## PATRIMONIO

**15.- ARTIKULUA**.- Erakundearen ondarean sartuko dira Getxoko Udalak beren beregi bere izenean jartzen dituen ondasun higikor eta higiezin guztiak, urteko aurrekontuak beteaz eskuratzen dituenak eta balizko dohaintzetatik datozenak.

**ARTÍCULO 15.-** Se incorporará al Patrimonio del Organismo todos aquellos bienes muebles e inmuebles que le sean expresamente asignados por el Ayuntamiento de Getxo, aquellos que adquiera como consecuencia de la ejecución de sus presupuestos anuales y de los que provinieran de posibles donaciones.

Getxoko Udalak erakunde autonomoaren izenean jarri dituen ondasunak ezin dira zamatu ezta besterendu ere, Udalak aldez aurretik baimena ematen ez badu”.

No podrán ser objeto de gravamen ni enajenación los bienes que el Ayuntamiento de Getxo haya adscrito al Organismo Autónomo, sin previa autorización expresa del Ayuntamiento.

**16.- ARTIKULUA**.- Getxoko Kultur Etxearen ondarea osatzen duen kapitala Erakundearen berezko helburuak lortzeko da bakarrik.

**ARTÍCULO 16.-** El capital que constituye el patrimonio del Aula de Cultura de Getxo, queda afecto exclusivamente a los fines propios del Organismo.

Kapitalaren jabari osoa Udalarena da, “Zerbitzu Publikoko Ondasuna” jatorrizko kalifikazio juridikoa duela.

Pertenecerá en pleno dominio al Ayuntamiento, con la calificación jurídica originaria de Bien de Servicio Público.

**17.- ARTIKULUA.-** Getxoko Kultur Etxeak bere helburuei lortutako ondasunak erabiliko ditu, onura aterako die, Estatutu hauetan aurreikusitako mugak

**ARTÍCULO 17.-** El Aula de Cultura de Getxo usará, disfrutará los bienes que forman el patrimonio vinculado a sus fines, sin más limitaciones que las

soilik dituela.

previstas en los presentes Estatutos.

**KULTUR ETXEAREN OGASUNA**

**18.- ARTIKULUA.**- Getxoko Kultur Etxearen ogasuna zera hauek osatzen dute:

a) Esleitzen zaion ondarearen emaitzek eta errentek.
b) Erakunde Publikoen diru-laguntzek.
c) Getxoko Udalak, bere urteroko Aurrekontuen kontura, haren helburuentzat esleitutako diru-ekarpenek.
d) Pertsona fisiko edo juridikoek haren alde egindako opari eta legatuek.
e) Erakusketetatik zein antolatzen diren ordaindu beharreko ikuskizunen txarteletatik eskuratutako kopuruek.
f) Eman lekiokeen beste edozein baliabidek.

**19.- ARTIKULUA.**- Erakundearen ogasuna hartutako betekizunen eta zorren erantzulea izango da, baina erantzukizunak ez dio Zerbitzu Publikorako utzitako udal jaberiako ondasun higiezinen ondareari eragingo, besterezina, bahituezina eta preskribituezina baita.

**20.- ARTIKULUA.**- Urtarrilero, Kontseilu Artezkariari heleraziko zaio Erakundearen ondarearen zuzenketa, aurreko abenduaren 31ri dagokiona, onar dezan.

**21.- ARTIKULUA.**- "Getxoko Kultur Etxea" Erakunde Autonomoa iraungiko balitz, Udala izango litzateke oinordeko unibertsala.

**22.- ARTIKULUA.-** Erakundearen kontabilitatea Udaleko Kontu Hartzailearen kontura egingo da. Korporazioaren kontabilitate orokorretik bereiztuta eramango da, indarreko arautegian xedatutakoa beteaz.

Kontabilitate teknika tokiko erakundeena izango da. Kudeaketa ekonomikoa argiagoa, eraginkorragoa eta

**HACIENDA DEL AULA DE CULTURA**

**ARTÍCULO 18.-** La hacienda del Aula de Cultura de Getxo estará constituida:

a) Por los productos y rentas del patrimonio que se les asigne.
b) Por las subvenciones de Organismos Públicos.
c) Por las aportaciones que destine a sus fines el Ayuntamiento de Getxo, con cargo a sus Presupuestos anuales.
d) Por los donativos y legados a su favor procedentes de personas físicas o jurídicas.
e) Por las cantidades que se obtengan de exposiciones, así como las procedentes de la entrada a los espectáculos de pago que se organicen.
f) Por cualquier otro recurso que pudiera serle atribuido.

**ARTÍCULO 19.-** La hacienda del Organismo responderá de las obligaciones y deudas contraídas, sin que tal responsabilidad alcance al patrimonio de bienes inmuebles de propiedad municipal destinados al Servicio Público que es inalienable, inembargable e imprescriptible.

**ARTÍCULO 20.-** En el mes de enero de cada año se someterá a la aprobación del Consejo Rector, la rectificación del Patrimonio del Organismo con referencia al 31 de diciembre inmediato anterior.

**ARTÍCULO 21.-** En caso de disolución del Organismo Autónomo "Aula de Cultura de Getxo", el Ayuntamiento le sucederá universalmente.

**ARTÍCULO 22.-** La contabilidad del Organismo estará a cargo del Interventor de Fondos del Ayuntamiento y se llevará a cabo con independencia de la general de la Corporación, de conformidad con lo dispuesto en la normativa vigente.

La técnica contable se acomodará a la de las Entidades Locales, sin perjuicio de aquellas modalidades que se

kontrolatuagoa izan dadin komenigarri irizten zaien modalitateak ere erabil daitezke.

**23.- ARTIKULUA**.- Udaleko Kontu Hartzailetzak antolatu eta zuzendu beharko du Erakunde Autonomoaren kontabilitatea.

**24.- ARTIKULUA**.- Erakunde Autonomoaren aurrekontuetako eta urteko kontuetako likidazioak tokiko korporazioetarako ezarritako arauen arabera egin beharko dira. Behin betiko onespena udal korporazioak eman behar du osoko bilkuran.

**25.- ARTIKULUA**.- Fondoen Kontu hartzailea ekonomia eta finantza arloetan Erakundearen aholkularia izango da eta honako eginkizun hauek dagozkio:

a) Presidente eta Idazkariarekin batera Urteko Aurrekontuaren aurreproiektua osatzea.
b) Aurrekontuaren Kontuak eta Erakundearen Ondarearen Administrazioa prestatzea eta idaztea.
c) Derrigorrezko Kontabilitate liburuak eta sarreren eta gastuen kontua eta arrazoia eramatea.
d) Kobrantzen eta ordainketen, hala nola kontabilitatearen kontuak hartzea.
e) Ordaintzeko aginduak sinatzea.
f) Erakundeko langileen nominak aztertzea eta berrikustea, hala nola fakturak, ziurtagiriak eta, orokorrean, ordaindu beharreko agindu guztiak.
g) Hilero kutxaren egoera eta fondoen mugimendua Kontseilu Artezkariari aurkeztea.

h) Urtarrilero aurreko ekitaldiko Kontu Orokorrak eta Ondarearen Administrazioa prestatzea.
i) Kontu hartzailetzaren berezko espedienteak eta agiriak zaintzea.
j) Karguaren berezko txostenak eta irizpenak igortzea eta, orokorrean, esleitzen zaizkion eginkizunak betetzea.

Kontu hartzaileak Getxoko Kultur Etxeko Idazkariaren esku utzi ahal ditu aipatu eginkizunak.

consideren convenientes para la mayor claridad, eficacia y control de la gestión económica.

**ARTÍCULO 23.-** A la Intervención Municipal corresponderá organizar y dirigir la del Organismo Autónomo.

**ARTÍCULO 24.-** Las liquidaciones de los presupuestos y de las Cuentas Anuales del Organismo Autónomo, se ajustarán a las normas establecidas para las Corporaciones Locales, correspondiendo su aprobación definitiva a la Corporación Municipal en Pleno.

**ARTÍCULO 25**.- El Interventor de Fondos será el asesor del Organismo en materia económica y financiera, y le corresponden las siguientes funciones:

a) Formar con el Presidente y el Secretario el Anteproyecto de Presupuesto Anual.
b) Preparar y redactar las Cuentas de Presupuesto y la Administración del Patrimonio del Organismo.
c) Llevar los libros de Contabilidad obligatorios, y la cuenta y razón de los ingresos y de los gastos.
d) Intervenir los cobros y los pagos, así como la contabilidad.
e) Firmar los mandamientos de pago.
f) Examinar y revisar las nóminas del personal del Organismo, facturas, certificaciones y, en general, todos los documentos que motiven la obligación de pago.
g) Presentar mensualmente el estado de la caja y el movimiento de fondos al Consejo Rector.

h) Preparar en el mes de enero de cada año las Cuentas Generales del ejercicio anterior y la Administración del patrimonio.
i) Custodiar los expedientes y documentos propios de la Intervención.
j) Emitir los informes y dictámenes propios del cargo y en general desarrollar cuantas funciones le estén atribuidas.

El Interventor podrá delegar las funciones anteriores en el Secretario del Aula de Cultura de Getxo.

## ZUZENDARI KUDEATZAILEA

**26.- ARTIKULUA**.- Zuzendari Kudeatzailea Getxoko Kultur Etxeko Administrazio eta Antolakuntza Zuzendaria da, Kontseilu Artezkariaren goi-malako eskuduntzak zein ondoren zehazten diren eginkizunak ahaztu gabe:

a) Getxo udalerrian kulturaren hedakuntza bultzatzea.
b) Mota guztietako kultura ekitaldiak bultzatzea, besteak beste hitzaldiak, erakusketak, lehiaketak, jaialdiak, kontzertuak, errezitaldiak e.a., hau da, arte eta kulturaren aldaera guztiak, Presidenteari ekimenen berri emanez eta dagozkien ebazpenak proposatuz.
c) Kontseilu Artezkariaren erabakiak gauzatzea eta betearaztea, beharrezko balitz Presidenteak ezarritako xedapenak burutuz.
d) Presidenteari laguntzea agintzen zaizkion kudeaketak eta eginkizunak burutuz.
e) Zerbitzu eta areto guztiak zuzentzea eta ikuskatzea, haien zein Zerbitzuko langileen gertuko zuzendariaren lanei Presidentearen menpean ekinez.
f) Erakundearen ordezkapen administratiboa eramatea, Presidenteak ordezkapen hau bere gain hartzen ez duenean.
g) Kontseilu Artezkariaren bilera guztietara joatea, hitzarekin baina botorik gabe.
h) Ekitaldien eta emandako zerbitzuen Memoria zein Kontseilu Artezkariak behar ditzakeen txostenak urtero idaztea.
i) Kontseilu Artezkariak edo Presidenteak adierazi eta emandako ahalmenak erabiltzea, beti ere bere eskuduntzen barruan.
j) Erabiltzaileen iradokizun eta erreklamazioei erantzutea.

## DIRECTOR GERENTE

**ARTÍCULO 26.-** El Director Gerente, es el Director Administrativo y de Organización del “Aula de Cultura de Getxo”, sin perjuicio de las superiores competencias del Consejo Rector y las funciones que se detallan a continuación:

a) Impulsar la difusión de la cultura en el municipio de Getxo.
b) Promover toda clase de actos culturales, tales como conferencias, exposiciones, concursos, certámenes, conciertos, recitales, etc., que comprenden todas las variedades del arte y de la cultura, dando cuenta al Presidente de sus iniciativas, proponiendo las resoluciones a adoptar en tales casos.
c) Ejecutar y hacer cumplir los acuerdos del Consejo Rector, con ejecución en su caso de las disposiciones establecidas por el Presidente.
d) Asistir al Presidente realizando gestiones y funciones que le encomienden.
e) Dirigir e inspeccionar todos los servicios y dependencias ejerciendo su dirección inmediata y la del personal del Servicio, bajo la dependencia del Presidente.
f) Representar administrativamente al Organismo, en los casos que la representación no sea sumida por el Presidente.
g) Asistir, con voz pero sin voto, a todas las reuniones del Consejo Rector.
h) Redactará anualmente la Memoria de actividades y servicios prestados y cuantos informes precise el Consejo Rector.
i) Ejercerá cuantas facultades se le señalen y otorguen por el Consejo Rector o el Presidente dentro de sus atribuciones.
j) Atender las sugerencias y las reclamaciones de los usuarios.

## UDALAREN TUTORETZA AHALMENAK

**27.- ARTIKULUA.-** Estatutu hauen aldaketa eta Erakundearen iraungipena erakundea sortu duen udal korporazioaren eskumena izango dira.

## FACULTADES DE TUTELA DEL AYUNTAMIENTO

**ARTÍCULO 27.-** La modificación de estos Estatutos, así como la extinción del Organismo, están atribuidas a la competencia de la Corporación Municipal que la crea.

Hala Estatutu hauek aldaratzeko nola Erakundea iraungitzeko, Tokiko Araubidearen Oinarrien Legean ezarritako prozedura beteko da.

Tanto para la modificación de estos Estatutos, como para la extinción del Organismo, se seguirá el procedimiento establecido en la Ley de Bases de Régimen Local.

**28.- ARTIKULUA**.- Getxoko Udal Txit Gorenak Getxoko Kultur Etxea Erakunde Autonomoak garatzen dituen ekitaldien goreneko ikuskapena du bere esku.

**ARTÍCULO 28.-** El Ilustre Ayuntamiento de Getxo tendrá la inspección superior de las actividades que desarrolla el Organismo Autónomo “Aula de Cultura de Getxo”.

**29.- ARTIKULUA.-** Kontseilu Artezkariak kudeaketa ekonomikoari dagozkion akordioak, kitapenak eta kontuen itxierak, emandako zerbitzuak adierazten dituen urteko Memoriaren ale batekin batera, igorriko dizkio Udalari.

**ARTÍCULO 29.-** El Consejo Rector elevará anualmente al Ayuntamiento los acuerdos correspondientes a la gestión económica, las liquidaciones y cierres de cuentas, acompañando un ejemplar de la Memoria anual expresiva de los servicios prestados.

**30.- ARTIKULUA**.- Kontseilu Artezkariak honako hauek igorriko dizkio Getxoko Udalari, Kontu Orokorrean sar ditzan:

a) Aurreko Ekitaldiko Aurrekontuaren Kontuak.

b) Erakundearen Ondarearen Urteko Kontua.

Bi kontuak urtarrilean zehar aurkeztu behar dira urtero Getxoko Udalean.

**ARTÍCULO 30.-** El Consejo Rector elevará al Ayuntamiento de Getxo para su inclusión en la Cuenta General:

a) Las Cuentas del Presupuesto del Ejercicio anterior.
b) La Cuenta Anual del Patrimonio del Organismo.

Ambas cuentas se presentarán en el Ayuntamiento de Getxo, dentro del mes de enero de cada año.

**31.- ARTIKULUA**.- Estatutuen erabilpenak edo interpretazioak sortutako zalantzak Udalak argitu eta ebatziko ditu.

**ARTÍCULO 31.-** Las dudas que susciten la aplicación o interpretación de los Estatutos, serán aclaradas y resueltas por el Ayuntamiento.

**32. ARTIKULUA**.- Estatutu hauek aurreikusten ez dituztenetan, zuzenbide osagarri gisa, indarreko legeriak eta udal araudiak ezarritakoak aginduko du.

**ARTÍCULO 32.-** En lo no previsto en estos Estatutos, regirá como derecho supletorio lo establecido en la legislación vigente y reglamentación municipal.

**XEDAPEN IRAGANKORRA**

Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 85 bis 1.b) artikuluan Erakunde Autonomoko zuzendaritza-organo gorenaren titularrarentzat jartzen diren baldintzak aldaketa hau indarrean sartzen denetik aurrera egiten diren izendapenetan aplikatuko dira.

**DISPOSICIÓN TRANSITORIA**

Los requisitos que el artº. 85 bis 1.b) de la Ley Reguladora de las Bases del Régimen Local recoge para el titular del máximo órgano de dirección del Organismo Autónomo, serán de aplicación para los nombramientos que se realicen a partir de la entrada en vigor de la presente modificación.

Texto aprobado por Pleno 25-6-04

**<u>DILIGENCIA</u>**: Se extiende para hacer constar que el Ayuntamiento Pleno en sesión celebrada el día 25-06-04 aprobó inicialmente la modificación de los Estatutos del Organismo Autónomo Local "Aula de Cultura de Getxo" que afectan a los artículos 1, 4.1, 6.c, 8.a, 8.b, 8.d, 8.f, 8.j, 8.k, 9.a, 9.g, 9.j, 13, 15, 22, 23, 24, 27, e incorporación de una Disposición Transitoria Unica, dentro del expediente de adecuación de los mismos a la Ley 57/2003, de 16 de diciembre, de Medidas para la modernización del Gobierno Local.

En el BOB nº 204, de 21-10-04 se publica anuncio relativo a esta aprobación.

No habiéndose presentado ninguna reclamación o sugerencia se entiende, de conformidad con el artículo 49 c de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local, definitivamente adoptado el acuerdo referido.

Según se establece en el citado acuerdo se procede a la publicación en el BOB nº 204, de 21-10-04 del presente Texto Refundido en el que se recogen dichas modificaciones, para seguridad jurídica en general y mayor comprensión del mismo.

Getxo, 27 de octubre de 2004.

IDAZKARI NAGUSIA/EL SECRETARIO GENERAL,

Stua./Fdo. D. Ignacio Javier Etxebarria Etxeita Jnak.